

URNIETA-HERNANI 2022



MUNISKUEGAÑERA, LARREETAN BARRENA

Abiapuntua eta helmuga: **Besadegi (Besabi), Urnieta**

Jarduera-mota: **ibilaldi gidatua**

Hartzaileak: **LH, DBH eta Batxilergoa**

Iraupena: **3 ordu**

Prezioa: **5 € ikasleko**

DESKRIBAPENA

Ibilbide labur honen bidez Muniskuegañeko monumentu megalitikoak ezagutuko da, baina helmugara iritsi aurretik askotariko baliabideak lantzeko aukera ere izango da; hala nola, larreak, landare espezieak eta lurraldearen giza erabilpenak. Hau guztia paisaia zoragarri batekin gozaten den bitartean. Urumeako Zilegimendiak izan zirenen zati handia bertatik bertara ikusten baita. Hango mendiak, basoak, larretokiak, errekek..., a zer nolako ikuskizuna!

INFORMAZIO OSAGARRIA

Muniskuegañan dagoen multzo megalitikoarengatik: zutarri bikaina, zista bikoitz paregabea, hiru cromlech, zein baino zein dotoreagoak... Leku gutxitan dago horrelako arkeologia ondarea hain eremu txikian. Gainera, azken urteetan Hernani eta Urnietako udalek egindako ahaleginari esker, oso zaindua dago multzo guztia. Alde horretatik, atentziona ematen du.